

DIRU-ITURRIAK

DESKARGAK (GOOGLE PLAY STORE)

Aplikazioak deskargatzearen ondorioz lortuko ditugun sarrerak. Zenbat eta jende gehiagok jaitsi aplikazio hau, orduan eta diru sarrera gehiago lortuko ditugu. Aplikazioa Google Play Store-en eskuragarri egongo da eta bertako ordainketa-metodoak honela funtzionatzen du:

- Ordaintzeko Android aplikazioen kasuan, aplikazioak sortuko duen diru-kopurua 30 eguneko epean jasotzen da kontuan.
- Google Play Store-ren ordainketa-metodoa 70/30 da. Hau da, app-ak sortzen duen diruaren %70 aplikazioaren jabearentzat da, hau da, guretzat eta gainerako %30a Google Play dendarentzat.

BANNERRAK

Gure aplikazioan, tarteka iragarpen batzuk agertuko zaizkie erabiltzaileei. Gure bannerrak batik bat goialdean eta alboko barran jarriko ditugu. Hasiera batean, guztientzat prezio bera jarriko dugu, eta ondoren, denboraren arabera prezioak aldatzen joango gara. Esaterako, denbora gehien daramatenei prezio merkeagoa ezarriko diegu berriei baino. Horretaz gain, iragarri nahi dute informazioaren araberrako ezaugarriak ere kontuan hartuko dira prezioa jartzerako orduan. Tamainaren arabera, adibidez, banner txikiak (80x80 px) 20 €/ud. - 100 €/ud. balioko ditu eta handiak (1500x1500 px) 100 €/ud. - 200 €/ud. Beraz, gure aplikazioan beraien publizitatea sartu dezaten, hileroko ordaindu egin beharko digute. Horrela, sarrerak lortuko ditugu.

PREMIUM-ZERBITZUA

Aplikazioa dohainik den arren, oinarritzko zerbitzuez gainera, hilean 5€ ordainduta premium zerbitzua eskuratzeko aukera eskaintzen dugu. Hau da, gure aplikazioak bi formatu izango ditu: bata sinplea eta bestea aurreratua (premium).

Honenbestez, premium erabiltzailearekin, doako ereduak onartzen ez dituen eduki esklusiboak eta beste funtzionalitate batzuk izango dituzte eskuragarri. Lehenik eta behin, harremanetan jartzerako garaian, ez

zaie ez iragarkirik, ezta bannerrik ere aterako; beraz, etenik gabeko elkarrizketa lasai bat izango dute. Gainera, hizkuntza gehiagotan komunikatu ahal izango dute eta noiznahi, izan ere, internetik gabeko lekuetan ere konektatzeko aukera izango dute.